

CONTRACIELO

Ondoan aritze Artistikoko Programa

Réplika Teatro SGAE Fundazioaren laguntzarekin

*En qualsevol comunitat peuterrosa,
la confiança en unes sements eternes
que roden i reviu en allibera la cultura
dels esforços de memòria massa ostensibles*
Perejaume

(Landa inguruko edozein komunitatetan,
behin eta berriro berpizten diren
betiereko haziekiko konfiantzak,
oroimen-ahalegin nabarmenagietatik askatzen du kultura)

Lurpeko meatzaritzan, **CONTRACIELO** esaten zaio hondotik gorantz egindako hondeaketa bertikal edo inklinatu bati, goitik behera hondeatzen diren tiro, tximinia edo putzu bertikaletatik bereizita.

CONTRACIELO bat lurpeko goranzko lan bat da, beheragoko maila batetik goragoko maila batera abiatzen dena. Poetikoki edo filosofikoki, zeruaren ikuspegi alderantzikatu bat, espazio liminal bat edo isla bat ere irudikatzen du.

Orain, **CONTRACIELO** ondoan aritze artistikoko programa bat ere bada.

| DEIALDIA |

CONTRACIELOren helburua sentsibiltate poetikoa garatzeko hasierako edo bitarteko etapan dauden artista, konpainia edo/eta talde artistikoen hautaketari espazioa, denbora, baliabideak eta ondoan aritzea eskaintzea da, baldin eta horien jardunbide artistikoak ikus-entzuleen aurrean ordezkatzeko arte biziaren izaera hartzen badu eta, gutxienez, sortzaile gisa esperientzia profesionala izan badute, euren nortasun artistikoan sakontzeko helduleku berriak eskainiz.

Programa euren orainaz jabetzen diren artista eszenikoentzat dago pentsatuta, gure garaia artikulatzen duten ideiekin erlazionatutakoentzat, garaikidetasunaren dinamikei eta lengoaia eszeniko berriei adi daudenentzat; arterako eta mundurako etorkizun posible desberdinak nahi dituztenentzat.

Programa hau
ez da egoitza bat
ez da tailer bat
ez da eskola bat

CONTRACIELOk salbuespenezko leku gisa eratu nahi du bere burua, eta ezagutzak eta esperientziak, lanerako espazioa eta denbora, baliabide tekniko eta ekonomikoak eta topaketak trukatzeko, sortzeko eta transmititzeko dinamikak sustatu nahi ditu esparru artistikotik zein sorkuntza garaikidearekin eta pentsamenduarekin erlazionatutako beste diziplina batzuetatik datozen beste profesional batzuekin.

Helburua sortzaile garaikideen garapen profesionalean ondoan aritzea da, haien poetikan eta praktikan sakontzen lagunduz, entzuteko, zaintzeko eta jarraipena egiteko testuingurua ezarriz. Asmoa ikerketari lehentasuna ematea eta metodologia artistikoak tenkatzea da, belaunaldien arteko truke teoriko-praktikoaren bidez, diziplina eszeniko konbentzionalen mugak eta haien balizko ertzak eta kutsadurak aztertuz, zalantza, galdera, etortzeko dagoena, oraindik izendatu ez dena, lotura berriak eta ustekabekoak egiteko ezagutza-eremu gisa jakintasun eza bizitzeko huts-espazioak ahalbidetuz.

Zer diogu **ONDOAN ARITZEA** diogunean?

Ondoan aritzea –Carolina Camposi jarraiki–, keinu teknikoa eta enpatikoa da aldi berean, “bitarteko” lekua da, leku politiko eta sentikorra, batez ere hiperproduktibitate eta eraginkortasun zorrotzeko inguruneetan prekaritatea gailentzen den artistikoak bezalako komunitateetan. Ondoan aritzea entzutea, arreta eta prestasuna da. Kezka eta sentsibiltatea. Laguntza, babesa, aitortza, errespetua eta afektua. Enpatia.

Ziurgabetasunean partekatzea, eustea, kolektiboki elkar eustea. Nigatik eta beste batzuengatik egotea.

*Bestearekin pentsatzeak pentsamenduaren lana indartzen du,
haren berezitasuna eta potentzial kutsakorra babesten ditu.*

*Bestearekin idaztea teknologia praktikoa da,
deskriptiboa (inskribatu egiten du)
zein espekulatiboa (konektatu egiten du).
Harremanak eta komunitatea eraikitzen ditu,
hau da, aukera.*

María Puig de la Bellacasa

Era berean, proiektu honek belaunaldi eta diziplina desberdinetako artisten eta pentsalarien arteko topaketarako dinamikak sortu nahi ditu, eta harreman sare elikagarri eta iraunkorra ahalbidetu. Kontua elkarrizketa eta jardunbidea anplifikatzeko, dinamizatzeko, sintonizatzeko, arazoa azaleratzeko eta hiztegi komuna ezartzeko tresna gisa erabiltzea da. Azken batean, helburu produktibista eta soilik emaitzak bilatzen dituztenetatik ihes egin nahi da, eta artisten izatea pribilegiatu, haien merkantilizazioaren gainetik.

Hain zuzen ere, azken horregatik, argi geratu behar da hau ez dela sorkuntza egoitzen programa bat. Prozesuaren amaieran emaitza bat erakustea ere ez da derrigorrezkoa, barruan jardunbideak eta materialak aktibatu ahal izango diren arren, sakontze lanaren parte gisa eta gainerako sortzaileekin partekatzeko bultzadaren emaitza gisa, kanpo begirada edo feedback jakin baten bila.

CONTRACIELO Réplika Teatrok SGAE Fundazioaren laguntzarekin bultzatutako programa da.

Programak topaketa, egoitza, lan teknikoko saio, eztabaida eta hautatutako artista bakoitzaren lan partikularrera bideratutako bestelako jardueren multzo baten forma hartuko du, bai eta gogoeta, kontestualizazio eta transmisiorako jardunaldi bateratuak ere, programaren hasieran eta amaieran dauden hautatutako artista guztiekin. Proiektuarentzat garrantzitsua da artistekin hitz egiteko dinamika horizontalak ezartzea, topaketak nondik bideratu marrazteko, kasu bakoitzean partikularrak izango baitira.

- Deialdia Espainiako edozein lurraldetako artista, konpainia eta talde artistikoentzat da.

- Mikolaj Bielskik, Alberto Cortése, Poliana Limak eta Álvaro Vicentek osatutako kudeaketa-taldeak baloratuko ditu hautagaitzak, balorazio-irizpide hauek kontuan hartuta:
 - Kalitate artistikoa
 - Ikerketa-lerroaren originaltasuna
 - Berrikuntza

Hautatutakoen artean lurralde- eta genero-oreka bultzatuko da.

- Bigarren fasera igaroko diren aurrehautatuen balorazioa sakonagoa izango da, elkarriketa pertsonalizatuen bidez.
- Azkenik, lau artista, konpainia edo/eta kolektibo aukeratuko dira. Horietako bat, derrigorrez, azken lau urteetan konpainia edo talde bat osatu duten Réplika Teatroko Arte Dramatikoko Diplomaturako ikasle ohiek osatuko dute.
- Azken hautaketa 2026ko apirilaren 20an jakinaraziko da.

Hautatutako artista, konpainia edo/eta kolektibo bakoitzak hau lortuko du:

- Astebeteko lana Réplika Teatron, dotazio teknikoarekin, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 15:00etara, eta Madrilgo Barbara de Braganza kaleko 7. zenbakian dauden SGAE Fundazioaren lan-espazioak erabiltzeko aukera, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara, kasu horretan zuzkidura tekniko eszenikorik gabe.
- Bi asteko lana gainerako artista hautatuekin partekatuta, oraindik baieztatu gabe dagoen elkarbizitza-espazio batean, zuzkidura teknikoarekin.
- Programaren kudeatzaile-taldearen ondoan aritzea eta laneko topaketak egitea harekin programaren aste guztietan.
- Laneko topaketak beste medio batzuetako artista edo profesionalekin, programaren kudeatzaileen eta hautatutako artista, konpainia edo/eta kolektiboen arteko aurretiazko akordioarekin, programaren laneko asteetan.
- 1.500,00 €-ko laguntza ekonomikoa (zergak aparte), lan- eta sakontze-saioetara joaten laguntzeko. Ordainketa egiteko, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituen zuzenbidean legez onartutako kobrantza-agiria aurkeztu beharko da.
- Madrilen lan egindako asteko ostatu-, dieta- eta garraio-gastuetarako bidaia-poltsa, Madrilgo Erkidegotik kanpo bizi direnentzat.
- Bidaia-poltsa, bizikidetza-eremuan partekatutako bi asteko lanaren garraio-gastuetarako eta dietetarako.
- Partekatutako laneko bi asteetan ostatua bizikidetza-eremuan.

Hautatutako artista, konpainia edo/eta kolektibo bakoitzak konpromiso hauek hartuko ditu:

- Presentzialtasuna eta prestasun osoa programaren hiru asteko lanean.
 - Hautaketa-prozesuaren datetarako prestasuna (kontsultatu programaren egutegia).
 - Fakturatzeko aukera izatea (autonomoak, enpresak, elkarteak, kooperatibak eta beste izaera juridiko batzuk), eta indarrean dagoen araudiaren arabera kontabilitate-, lan- eta zerga-betebeharrak betetzea.
-

EGUTEGIA

- 2026ko otsailak 16: deialdiaren irekiera
- 2026ko martxoak 15: deialdiaren itxiera 23:59an (penintsulako ordutegia)
- 2026ko apirilak 8: jakinarazpena aurrez hautatutakoei
- 2026ko apirilak 18: online bilerak aurrez hautatutakoekin
- 2026ko apirilak 20: hautatutakoen jakinarazpena eta argitalpena
- 2026ko apirilak 27-29: online bilerak hautatutakoekin
- 2026ko ekainak 8-12: laneko eta bizikidetzako lehen aste bateratua (zehaztu gabeko espazioa)
- 2026ko irailak 14-18: banakako lan astea Réplika Teatro eta SGAE Fundazioan
- 2026ko urriak 26-30: banakako lan astea Réplika Teatro eta SGAE Fundazioan
- 2026ko azaroak 23-27: banakako lan astea Réplika Teatron eta SGAE Fundazioan
- 2026ko azaroak 30etik abenduak 4ra: banakako lan astea Réplika Teatron eta SGAE Fundazioan
- 2027ko urtarrilak 25etik 29ra: laneko eta bizikidetzako bigarren aste bateratua (zehaztu gabeko espazioa)

ESKABIDEA

Bete formularioa esteka honetan, jarraian zehazten den informazioa sartuz:

<https://form.jotform.com/contracielo/solicitud>

- Datu pertsonalak eta harremanetarako datuak
- Biografia pertsonal eta artistiko laburra (200-300 hitz)
- Gutxienez egindako bi lanen bideo osoetarako estekak (ez teaserrik, ez trailerrik).
- Gehienez 400 hitzeko motibazio gutun baten irakurketa jasoko duen eta galdera hauei erantzungo dien bideo bat:
 - 1.- Nortzuk zareten
 - 2.- Nola iritsi zareten honaino eta nora joan nahi duzuen: desio bat
 - 3.- Zuen jardunbidearekin nora iritsi nahi duzuen
 - 4.- Zein den zuen sormenerako motorra
- Zuen orainaldi artistikoa islatzen duten bost irudi (sustapen-irudiak, markakoak edo korporatiboak ez).

TALDEA

Zuzendaritza: Mikolaj Bielski

Kudeaketa, koordinazio eta kontzeptualizazio taldea: Mikolaj Bielski, Alberto Cortés, Poliana Lima eta Álvaro Vicente

Laguntza artistikoko talde egonkorra: Mikolaj Bielski, Alberto Cortés eta Poliana Lima

Kontalaritza: Álvaro Vicente

Talde teknikoa: George Marinov eta Carmen Menager

Ekoizpena: Mikolaj Bielski eta Mar López

Komunikazioa: Macarena Bielski

Diseinua: Manuel Pita-Romero

Réplika Teatrok bultzatuta, SGAE Fundazioaren laguntzarekin

RÉPLIKA TEATRO

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CREACIÓN



fundación **sgae** fundazioa